

## MUGIMENDU FEMINISTAREN ERRAIEI BEGIRA MAHAI-INGURUA

### Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak

MILITANTZIA FEMINISTA GAUR. AMORRUA ANTOLATZEN

FeminstAlde!

2019ko azaroak 3

Mahainguru honetako hitzartze bakoitzean hiru galdera hauek erantzun beharko dira eta hizlariak zortzi minutu izango dituzte osotara. Ondoren, tailer erraldoia burutuko dugu lantaldeka gaien sakontzen jarraitzeko.

LABURPENA:

Nazioartean feminismoa gorantz doa, bai alde teorikoan, baita antolakuntzari dagokionean ere. Martxoaren 8ko nazioarteko greba eta inguruan artikulatutako estrategiak horren adibide argiak dira. Momentu berean, kontraeraso kontserbadore eta neoliberalaren aurrerapena bizitzen ari gara: eskubideen galera eta atzerapauso demokratiko larriak; sakoneko izaera arrazista eta koloniala duen kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren berkonfigurazioa; krisi ekologiko eta klimatikoa...

Feminismoa, nazioarte mailan, muturreko eskumari aurre egin dion mugimendu nagusienetakoa da, horregatik ezinbestez aliantzak eta artikulazioak eraikitzen eta indartzen jarraitzeko beharra ikusten dugu, errotik antikapitalista, interseksionala, internazionalista, antiarrazista eta ekologista den feminismoa eraikitzen jarraitzeko. Horretarako FeministAlde!-n egite globala eta estrategia komunei buruzko hausnarketa sakona egitea lehentasuna duela uste dugu, artikulazioak birpentsatzea eta subjektu feminista anitz eta askotarikoa handitzen eta indartzen jarraitzea.

**1. ZER:** Euskal Herrian egitura patriarkalek zein indar feministek bizi duten egoera kontuan hartuta zein (edo zeintzuk) izan beharko litzateke Mugimendu Feministaren **eginkizun nagusia** datozen urteetan? Aipatu daitezke: egoeraren diagnostikoa; identifikatzen ditugun beharrak, erronkak eta lehentasunak; lan ildoak; Mugimendu Feministaren lurzoru komuna edo proiektu estrategikoak; eraldaketarako palankak...

Egoeraren diagnosiari dagokionez, alde batetik kontuan izan behar dugu nazioartean **feminismoa gorantz** doan errealitatea dela, bai alde teorikoan, baita antolakuntzari dagokionean ere. Martxoaren 8ko nazioarteko grebak eta inguruan artikulatutako estrategiak horren adibide argiak dira.

Momentu berean, **kontraeraso kontserbadore eta neoliberalaren aurrerapena** bizitzen ari gara: eskubideen galera eta atzerapauso demokratiko larriak; sakoneko izaera arrazista eta koloniala duen kapitalismoaren eta heteropatriarkatuaren birkonfigurazioa; krisi ekologiko eta klimatikoa... Adibide bezala, Europar Batasunaren migrazio politikak eta mugen itxiera sistematikoa dugu, giza-eskubideak bertan behera utziz; edo krisi ekologikoari eta klimatikoari erantzun ezean, hori indartzen duten politika estraktibistak bultzatzen dituzte, sistemaren beharrei erantzun nahian.

Egoera horretan ezin dugu ahaztu birkonfigurazio horrek **sexuaren araberako lan banaketa** behar duela sistema mantentzeko; ezinbesteko du zaintza lanak doakoak izaten edota esklabotza egoeretan bermatzen jarraitzea, baita emakumeok eskulana hazten eta hezten segitzea edota enplegu prekarioenetan egotea ere.

Bestalde, birkonfigurazio kapitalista eta heteropatriarkalak **diziplina** ezarri behar du bere helburuak eta egiturak mantentzeko. Krisi eta zilegitasun-galera egoera batean, sistemak diziplina mekanismoak indartu behar ditu, bai kriminalizazioaren bitartez eta sistemarentzat mehatxu diren pertsonen edo mugimendu sozialen estigmatizazioaren eta haiekiko beldurraren bitartez, bai jazarpena edota autoritarismoaren bitartez, giza eskubideen urraketa larriak sorraraziz. Hainbat adibide ditugu hurbilean, esaterako, *El Coño Insumiso* auzipetutako kasua; martxoaren 8ko isunak Gasteizen edota Bilboko Zubiarte merkataritza gunean; Deustuko zubian indarkeria matxistaren kontrako ekintzagatiko isunak, eta abar. Edota giza eskubideen defendatzaileen eta aktibista feministen aurkako jazarpena nazioartean, hala nola, Berta Cáceres, Marielle Franco edo, hurbilago, Helena Malenoren kasuak, besteak beste.

Gainera, egun bizi dugun **indarkeria matxistaren normalizazioa** birkonfigurazio horren ezinbesteko atala dela esango genuke, non batzuen bizitzek eta gorputzek beste batzuenak baino gutxiago balio duten.

Hortaz, sistemaren birkonfigurazio horri aurre egiteko ezinbestez diagnosi egokia egin behar dugu, nahiz tokiko testuinguruan, nahiz nazioartekoan. Momentu larria bizi dugu eta erasoan aurrean, amorrua antolatu behar dugu; izan ere, bizi dugun egoera honetan ezin dugu ahaztu hau ez dela bakarrik eskubideen erregulazio eza. Egoera honetan **jokoan dagoena da nortzuk diren eskubide horien jabe.**

Kapitalismoaren birkonfigurazio horretan ere feminismo liberalari adi egon behar gara. Hau da, gizarte eredu politiko eta ekonomiko neoliberala sostengatzeko emakumeentzako feminismoaren eta feminismo interseksionalaren - edo hainbat egilek izendatutako **%99aren feminismoaren** - arteko eztabaidari so egin behar diogu. Horregatik da guretzat hain garrantzitsua errotik antikapitalista, interseksionala, ekologista, internazionalista eta antiarrazista den feminismo baterantz borrokan jarraitzea. Bide horretan, gure ustez, eztabaida praktika feministan kokatu behar dugu, zeregin nagusietako bat izanik **subjektu feminista anitz eta askotarikoa** handitzen eta indartzen jarraitzea, eta **antolaketa internazionalista** eta feminista baterantz lanean segitzea.

Borroka eta estrategia komun horretan **lan ildoak** asko dira baina guretzat; ezinbestean, honako hauek dira lehentasunez jorratu beharrekoak: indarkeria matxistaren aurkako borroka neurri erreal eta eraginkorrek, diskurtso hutsalak azaleratuz; zaintza lanen inguruko erantzukidetasuna, lan duina eta trantsizioa ekonomia ekofeminista baterantz, eta atzeritartasun legearen abolizioa, besteak beste.

Horregatik guztiagatik FeministAlde!-n, uste dugu lehentasunezkoa dela **egite global eta estrategia komunei buruzko hausnarketa** sakona egitea. Estrategiak eta aliantzak birpentsatzea, kontraeraso kontserbadore eta neoliberalari aurre egiteko, eta eztabaidak

praktika feministan lur hartu dezan. Izan ere, Justa Monterok dioen bezala, "iragana irabazi dugu; geroa eraikitzeke dago".

**2. NORR:** Norekin egin behar dugu bide hori? Aipatu daiteke: Nor gara gu eta nor izan nahi dugu, aliantzak, subjektuaren artikulazioa...

Nor gara gu? Esan bezala, galdera horri erantzuteko, etengabeko eraikuntzan dagoen subjektu feministari so egin behar diogu. Izan ere, hau guztia ezinezkoa litzateke **eguneroko lana**, militantzia eta praktika feminista autonomoa izango ez balitz. Sute txiki hori gara, beti piztuta dagoena eta beharrezkoa denean egurra hartu eta indarrez pizten dena. Gaur egungo egoera **genealogia feminista** luze baten ondorioa da, eta aurretik egindako lanaren ondorioak izan dira, besteak beste, martxoaren 8ko grebak edo antolatutako ditugun Euskal Herriko V. Jardunaldi Feminista hauek.

Diagnosian azaldutako egoera guztiei aurre egiteko **potentzia handiko eragileak** gara gu, mugimendu feminista. Feminismoa nazioartean muturreko eskumari aurre egin dion mugimendu nagusienetakoa da; izan ere, emakumeok\* gara haien erabakien galtzaile nagusiak. Baina ezin dugu erantzukizun guztia gudan hartu. Ezinbestez **aliantzak eta artikulazioak** eraiki, landu eta indartu behar ditugu beste mugimendu sozialekin batera, eskubideen urraketak ez baititugu guk bakarrik sufritzen, baizik eta sistema zalantzan jartzen duten beste askok ere.

Euskal Herriko mugimendu feminista anitza bada ere, lortu dugu leku desberdinetatik **barne zein kanpo marko minimoak** zehaztea. Egungo mugimenduaren indarraren gakoa feministon arteko eztabaidetan eta praktika feministan egon dela uste dugu, baina momentu honetan, banatzen gaituzten gauzetan sakondu beharrean, elkartzen gaituztenetan indarrak jarri behar ditugula pentsatzen dugu. Gure aurka datozenak asko dira jada gu elkarren kontra egiten ibiltzeko.

Ondorioz, hainbat ideia azpimarratu nahi ditugu:

- **Behirada internazionalista:** Martxoaren 8ko greban egin dugun bezala, munduko hainbat tokitan bat egin dugu ekintza bakar batean, muga eta sasi guztien gainetik. Martxoaren 8a greba transnazioaletako lehena izan zen, pilaketa feministaren prozesu luzearen emaitza, alegia: #NiUnaMenos Argentinako eta Italiako lagunen mobilizazioak, abortuaren aldeko emakume poloniarren eskutik etorritakoak, Latinoamerikako lagunen indarkeria matxistaren aurkako olatu erraldoia, Bolsonaroren hautagaitzaren kontrako feministen mobilizazioak; Trumpen kontrako Women's March... Baina borroka internazionalista harago doa. Hurbilago dugu Ekuadorreko Estatuaren eta FMI-aren aurkako mobilizazioetan emakume indigenen eta mugimendu feministaren papera; Euskal Herriko Mundu Martxa; Rojavako emakume kurduen borroka eta Euskal Herriarekiko aliantzak; Txile, Nikaragua, Palestina, Sahara, eta abar. Horietan guztietan, ahal dugun heinean, beste herrialde batzuetan emakumeen eskubideen aurka egiten denean guk guztiok salatzen ditugu, aspaldiko lelo feministak dion moduan, "*Si tocan a una nos tocan a todas*". Greba deialdia tresna bat izan da ikasketa prozesu jarraitua bideratzeko, baina orain argi

dugu ez dugula onartuko inoiz ere feminista ez den bestelako grebarik edota mobilizaziorik.

- **Subjektuaren artikulazioa:** mugimendu feminista gero eta pluralagoa den heinean, ez da nahi izango genuke bezain anitza, eta gurutzatzen gaituzten pribilegioak, prekarietateak eta ezberdintasunak ikuspegi interseksional batetik aztertzen eta praktikara eramaten jarraitu behar dugu. Hori baita etengabeko eraikuntzan dagoen subjektua izatearen gakoa. Baina ezin ditugu inbisibilizatu mugimenduaren parte diren emakume arrazializatuak, migranteak, etxeko langileak, gazte prekarioak, aniztasun funtzionala duten emakumeak, bollerak, kelly-ak, eta abar luzea. Borroka feministak subjektu feministaren edota pribilegioen inguruko eztabaida zabaldu digu. Hortaz, ez da soilik horren inguruan teorizatu behar dugula, baizik eta teoria praktikara eraman behar dugula, aztertuz ezberdintasun horiek nola kokatzen gaituzten sistemaren aurrean horiei aurre egiteko.
- **Espazio autonomoak** eduki behar ditugu. Sarean lan egiteak ez du esan nahi espazio eta agenda propioak izateari uko egin behar diogunik. Ezinbestekoa iruditzen zaigu bakarrik “gureak” diren espazioak defendatzea eta gure agenda markatzea. Instituzio eta alderdi politikoek ezin dute lehentasunezko agenda markatu edo erritmoak ezarri: agenda feminista propioa behar dugu.
- **Izaera antikapitalista eta arrazismoaren aurkakoa** bermatu nahi badugu, esplotazio heteropatriarkala desagerrarazteko ezinbestez kapitalismoarekin eta arrazismoarekin amaitu behar dugu. Horretarako, feministok edonon egon behar gara eta espazio guztiak bustitzen saiatu, beste eragile eta mugimendu sozialekin aliantzak sortuz. Horregatik gabilta FeministAlde!-n, ahal dugun neurrian, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Gutun Soziala edo TTIP eta Kapitalaren kontrako plataforma edo antzeko espazioetan, zapaltzen gaituzten beste sistema horien aurkako ekintzetan begirada feminista ahaztu ez dadin.
- **Instituzioekin harremana:** Erakundeek badaukate euren papera berdintasunaren aldeko politikekin. Guk, nekagarria bada ere, horietan eragitea beharrezkoa dela ikusten dugu. Hainbat ahalegin egin ditugu instituzioek eskaintzen dituzten parte-hartze prozesu eta espazioetan eragiteko, eta eduki dugun esperientzien ostean, gero eta argiago daukagu konfrontaziorako estrategiak beharrezkoak direla, eskaintzen dizkiguten espazio eta prozesuak ez baitute bermatzen gure parte-hartzea eragile zuzenak bezala. Gainera, azken urteetan asko hedatu dira hutsik dauden diskurtsoak eta praktika politikoak erakundeen artean. Gainera, erakunde batzuek jada mugimendu feministaren diskurtsoak xurgatu dituzte, horiek despolitizatu nahian. Euskal Herriko V. Jardunaldi hauetan ardura hau ere agertu da eta asko eztabaidatu dugu, horrek dakarren frustrazioa lantze aldera; azken batean, amorrua antolatze beharra eta nahia argi identifikatu dugu. Hori guztia dela eta, diskurtso eta programa huts horiek salatu eta instituzioei euren erantzukizuna exijitu behar diegu. Gaietan egon behar gara, baliabideak jar ditzaten eta benetako borondate politikoa izan dezaten, eta inkoherentziak seinlatu behar ditugu. Bilbon, adibidez, ez dugu emakumeen etxerik, ezta jabetze eskolarik; orokorrean berdintasunaren aldeko politikak gastu publikoaren portzentaje iraingarria islatzen dute; bestalde, etxeko langileen egoera prekarioa dugu, non politikarien erabakiek prekaritate horretan jarraitzera kondenatzen dituzten; edota Atzerritartasun Legea, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) edo adinekoen egoitzetako langileen borroka

lan duinaren alde, eta abar. Jeanne Rolande Dacougnak egun hauetan esan duen bezala, *“patriarkatua kontrako eztaeratik sartu behar zaie, ezin dira eroso mugitu diskurtso feministan”*.

Horrekin guztiarekin, beraz, **begirada globala eta konplexua** beharrezkoa dela esan nahi dugu; herrien arteko aliantzak behar ditugu kapitalismoari, faxismoari eta kontserbadurismoaren birkonfigurazioari aurre egiteko, beti ikuspegi feminista batetik. **Nazioarteko elkartasun feminista** bultzatu behar dugu, kontraeraso patriarkal honen aurrean elkarren artean zaintzeko, antzinako marko burokratikoak eta eurozentristak aldentuz. Izan ere, erresistentzia hain gogorak eta indartsuak sostengatzeko ezinbestekoa da elkartasun eta begirada feminista zein internazionalista. Eta begirada horrekin, gero, herri bakoitzean gure errealitate hurbilean ere eragin, tokian tokiko ekintzak eginez, elkarrengandik ikasiz.

**3. NOLA:** Nola antolatu-egituratu nahi dugu Mugimendu Feminista? Aipatu daiteke: koordinazio espazioak erabakiak hartzea, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, saretzea, militantzia eta parte hartze ereduak, agendak...

Gure ustez, jarduera feminista kale, plataforma zein mobilizazioetan dago, baina baita sare sozialetan, eztabaida-talde, mintegi, hausnarketa-espazio eta bileretan ere; izan ere, **ekintzak hausnarketaren beharra duela uste dugu, baita alderantziz ere**. Biak ezinbestekoak dira, ez bakarrik feminismo autonomoaren baitan, baita beste batzuekin elkarlanean ere. Hala ere, jakin badakigu toki guztietan egotea ezinezkoa dela, eta askotan mugimendu feministaren “agenda propioetik” kanpoko egitura eta ekintzetan parte hartzea zaila izaten dela.

**Saretuta egiten dugu lan:** plataformak; koordinadorak; kanpaina ezberdinak, hala nola, “Gerra hemen hasten da”, etxeko-langileen eskubideen aldekoak, indarkeria matxista kasuak salatzen deialdiak; sindikatuekiko aliantzak (adinekoren egoitzetako langileen greba, martxoaren 8aren antolaketa), eta bestelako eragile zein mugimendu sozialekin ditugunak; besteak beste.

**Antolaketarako forma eta artikulazio modu berriak:** praktika feministak erakutsi digu egiturak ezin direla helburua izan. Militantzia eta eraldatze soziala helburua bada, **egiturak, lan egiteko moduak, sareak, metodologiak, aliantzak...** helburu horiek lortzeko **bideak izan behar dira, inoiz ez helmugak**. Martxoaren 8ko greba deialdiak eskatu digu gure artean antolatzen eta artikulatzeko moduak berrikustea eta egokitzea, bai barnera begira (gure artean, beste eragileekin, mugimendu sozialekin, aliatuekin...), bai kanpora begira ere (sare sozialak, komunikabideak, erakunde publikoak, eta abar). Hainbat tresnaren bitartez antolatzen gara. Batzuk mantendu dira, beste batzuk egokitu dira, eta beste batzuek indarra galdu badute ere, beharrezkoa izan denean, eta ahal izan dugun neurrian, aktibatu egin dira. Horri lotuta, erabakitze **esparruak hierarkikoak ez izateko beharra** azpimarratu nahi dugu, eta horizontaltasuna bermatzeko lanean jarraitzekoa. Ideia horretan sakonduz, gure ustez, mugimendua bizirik dagoen heinean ikasten goaz, eta gure egiteko moduak aldatzen doaz. Hori ere bada gure gaitasun onenatariko bat.

Puntu horretan, **sare sozialen** kontuan gelditu nahi dugu pixka bat, eta galdera batzuk plazaratu: zeintzuk dira sare sozialen onurak? Alde batetik, mezuak kokatzeko, nazioarteko artikulazioa gauzatzeko eta eguneroko informazioa bermatzeko aukera ematen digute, baina, erritmo frenetikoak markatzeaz gain, non gelditzen da kale ekintza, militantzia? Nola erantzun sareen erritmo frenetikoei bidean burua galdu gabe? Nola lotu sareetan ematen den aktibismoa kale ekintzarekin? Gu sareetan gaude, eta webgune propioa izatea erabaki dugu, apustu handia eginez, baina oso eztabaidagarria da; izan ere, zaila da jakitea noraino den onura eta noraino bideratu gaituzten kontrolpean egotera edota kaleetatik ateratzera. Egun hauetan ere hainbat lagunek - Las Farrukas taldekideek eta Josebe Iturrioz Medeak taldeko kideak, esaterako - gai hori jarri dute mahai gainean, hainbat eztabaida-lerro berri plazaratuz: mezuak despolitizatzeko arriskua, sareetan bizi dugun esposizio publikoagatik matxismoaren eraso-sareen birkonfigurazioa, eta abar.

Ibilbide luzea duen antolaketa feministarako potentzia handiko oinarria dugu mugimenduan. Horrek bidea zabaltzen du militantzia forma anitzak sortzeko, funtzionatzeko bide berriak eraikitzeko, militantzian ibilbide ezberdinak dituzten - edo praktikarik ez duten - emakumeak barneratzeko, parte-hartze eredu ezberdinak pentsatzeko eta prozesu zabal eta plurala izaten jarraitzeko.

**Malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna** edukitzea beharrezkoa da: lurralde, herri eta auzoetan testuinguruaren araberako antolaketa eta militantzia nahi dugu, eta horietara egokitzeko gaitasuna behar dugu errealitateari erantzuteko, agenda komunaren barruan.

Artikulazio horretan, FeministAlde! bezalako **talde feminista autonomoentzat**, tokian tokiko herri bakar batean egonda eta liberaturik gabe, zaila da askotan sareetan parte hartzea edota gure herrialdetik kanpoko bilera eta plataformetara joatea. Hori ere kontuan hartu beharrezkoa da Euskal Herriko mugimendu feministaren artikulazioaz ari garenean. Egia da teknologia berriek zenbait gauza errazten dizkigutela, baina garrantzitsua iruditzen zaigu talde bakoitzaren baliabide, pertsona kopuru eta bitartekoak ere ez ahaztea. Aldi berean, gu talde feminista autonomoen defendatzaile sutsuak gara, aurretik esan bezala, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu gure herrietan finkatutako espazio propioak edukitzea eta horietan eragitea.

Mahai honen bitartez saiatu gara guretzat feminismoaren erdigunean dauden hainbat eztabaida plazaratzen, gure arteko hausnarketa eta indartze-lana bultzatzen jarraitzeko. Julia Marti FeministAlde!-ko kideak dioen bezala, ez gara hona etorri eszenaratze bat egitera, baizik eta eztabaida sakonak zabaltzera eta horiei aurre egiteko estrategiak eraikitzera. Baina zailtasunak zailtasun, eta oztopoak oztopo, borroka feminista mantendu eta aurrera eraman dugu; bakardadean; geure esparru pribatuan batzuetan, zein beste ahizpa eta kide feministekin batera beste askotan... eta zalantzarik gabe, **bizitzan egin dezakegun gauzarik handiena da. Ez dago atzerapausorik.** Geure arbaso feministek guretzako bizitza hobea bat lortu zuten borroka latzaren bidez; desobedientzia zibilaren bidez. Geure belaunaldian ere lorpen itzelak eskuratu ditugu eta aurrean beste hainbat lortzeke ditugu. Jardunaldi hauek bultzada hartzeko tresna izan behar dira, azaroaren 25ean gure herriak eta auzoak hankaz gora ipintzeko, *purplewashing*-aren aurkako borroka bizirik mantentzeko, martxoaren 8ko mobilizazioak mugak gainditzen jarraitzeko, borroken arteko

zubiak eraikitzeke, eta azken finean, mundua eraldatzeko. Hemen jarraituko dugu, jo eta ke, geure helburu guztietara heldu arte: GORA BORROKA FEMINISTA! GORA EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI FEMINISTAK!